



**ERABAKIA, ZEINAREN BITARTEZ EBAZTEN DEN ZATI BATEAN  
BAIESTE A EUSKADIKO KADETE ETA JUNIOR TXAPELKETAN, SUB-21  
EUSKADIKO KOPAN ETA DESGAIUENTZAKO EUSKADIKO KATA  
KOPAN PARTE HARTZEKO KARATE EUSKAL FEDERAZIOAK  
EZARRITAKO IRIZPIDEEN AURKA ARABAKO KARATE FEDERAZIOKO  
JARDUNEKO LEHENDAKARI \*\*\*\*\* JAUNAK JARRITAKO  
ERREKURTSOA**

---

**Espediente-zenbakia: 27/2016**

**AURREKARIAK**

Lehena.- 2016ko urriaren 21ean, Arabako Karate Federazioko (aurrerantzean, AKF) jarduneko lehendakari \*\*\*\*\* jaunak errekurtsua jarri zuen Karate Euskal Federazioko (aurrerantzean, KEF) zuzendari teknikoak Euskadiko Kadete eta Junior Txapelketan, Sub-21 Euskadiko Kopan eta desgaituentzako Euskadiko Kata Kopan parte hartzeko ezarritako irizpideen aurka. Irizpide horiek ezartzen dute Euskadiko txapelketek egitura piramidala izan behar dutela eta txapelketa horietan parte hartzeko lurralde-federazioen bitartez eman beharko dela izena lizentzietan duten ehuneko abiapuntutzat hartuta; horrez gain, zehazten dute federazio horiek gehieneko parte-hartzaile kopuru bat inskribatuko dutela kategoria eta pisu bakoitzerako.

Errekurtsu hori jartzearekin lortu nahi da irizpide horien erabateko deuseztasuna deklaratzeko irizpide horiek aginpiderik gabeko organo batek eman dituelako eta lege ezarritako prozedura guztiz alde batera utzi delako, eta, horrenbestez, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatuta dagoen eta indarrean dagoen lehiaketa-arautegian biltzen diren irizpideak aplikatzea eta Euskadiko Txapelketaren oraingo edizioa



deuseztatzea federazioaren lizentzia duten eta lehiaketa-arautegiaren baldintzak betetzen dituzten federatu guztiek parte hartu ahal izateko.

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean, KJEB) erabaki zuen errekurso hori bideraketarako onartzea eta KEFri espedientea eskatzea eta, halaber, egokitzat hartzen zituen alegazioak egiteko epea ematea. Alegazioak 2016ko azaroaren 24an aurkeztu zituen eta alegazio horietan eskatu zuen AKFk aurkeztutako errekurtoa gaitzestea; izan ere, emandako argudioen arabera, orokorrean aplikatu behar den indarreko legeriaren arabera, argudioak zuzenbidearekin bat etorriz eman dira; eta, horrela egin izan ez balitz ekarriko luke federatuentzat beharrezkoa ez den nahasketa batean erortzea.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

Lehena.- KJEBak du errekurso hau aztertzeko eskumena, hala xedatzen baitute Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak (aurrerantzean, EKL), 138.c artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak (aurrerantzean, KJEBD), 3.c artikuluan.

Bigarrena.- Urtarrilaren 31ko Euskadiko Kirol Federazioen 16/2006 Dekretuak (aurrerantzean, 16/2006 Dekretua) 13.1 artikularen c) eta d) letretan ezartzen du lehiaketa ofizialak antolatzea eta parte hartzeko eta lehiatzeko euren arauak ezartzea direla euskal federazioen eginkizunak.

Agindu horiek betez, KEFk joan den urriaren 23an Euskadiko Kadete eta Junior Txapelketa, Sub-21 Euskadiko Kopa eta desgaituentzako Euskadiko Kata Kopa antolatu zituen espedientean azaltzen diren parte hartzeko irizpideen arabera. Irizpide horiek ezartzen dute Txapelketek egitura piramidala



izan behar dutela eta txapelketa horietan parte hartzeko lurralde-federazioen bitartez eman beharko dela izena lizentzien ehunekoaren arabera; horrez gain, zehazten dute federazio horiek gehieneko parte-hartzaile kopuru bat inskribatuko dutela kategoria eta pisu bakoitzerako.

Hala ere, Dekretu horren 36. artikulua arabera, lehiaketa ofizialak izango dira federazioaren egutegi ofizialean jarri eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egiten direnak. Lehiaketa horietan dagokion euskal federazioko lizentzia duten kirolariek, eskubide guztiak dituztela baino ezin izango dute parte hartu.

Ondorio horietarako, adierazi behar da lehiaketa guztiak Euskal Autonomia Erkidegoan egin direla, baina Euskadiko Kadete eta Junior Txapelketa eta Sub-21 Euskadiko Kopa soilik azaltzen direla KEFren egutegian, desgaituentzako Euskadiko Kata Kopa ez baita azaltzen, KEFren web-orrian argitaratutako informazioan ikus daitekeenez; horregatik, lehenengo biak bakarrik har daitezke ofizialtzat.

Beraz, bi kategoriak bereizita aztertuko ditugu.

Lehiaketa ofizialei dagokienez, 16/2006 Dekretuaren 14.2 artikulua h) letrak ezartzen du federazioen administrazio-funtzio publikoa dela federazioen estatutuak eta arautegiak onartzea. Horrenbestez, federazioak behartuta daude, besteak beste, lehiaketa ofizialen arautegi bat egitera. Arautegi horren indarraldia, aipatutako Dekretuaren 69. artikulua arabera, arautegiaren administrazio-onarpenaren eta, ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzearen baldintzapean dago. Arautegi horiek inskripzio-egun horretatik aurrera izango dituzte ondorioak, bai federatuentzat bai hirugarrengentzat eta erakundeentzat.



Bada, aipatutako Erregistroan, KEFri dagokionez, honako arautegi hauek daude inskribatuta:

- Eusko Jaurlaritzako Kiroletako zuzendariaren Ebazpenaren bidez onartutako lehiaketari buruzko arautegia, 2008ko irailaren 10ekoa (aurrerantzean, 1 Arautegia)
- Eusko Jaurlaritzako Kiroletako zuzendariaren Ebazpenaren bidez onartutako kumite- eta kata-lehiaketari buruzko arautegia, 2008ko irailaren 10ekoa (aurrerantzean, 2 Arautegia)
- Eusko Jaurlaritzako Kiroletako zuzendariaren Ebazpenaren bidez onartutako kumite- eta kata-lehiaketari buruzko arautegia, 2010eko abenduaren 13koa (aurrerantzean, 3 Arautegia)

Errekurtsogileak aipatu du “gaur Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatuta dagoen lehiaketei buruzko arautegian” bilduta dauden parte hartzeko irizpideak urratu direla, baina ez du zehaztu inskribatutako arautegien zer atal edo xedapen ez den bete. Era berean, KEFk suposatu du erreferentzia hori 2008ko urtarrilaren 17an inskribatutako arautegian zehazten dela. Hala ere, aurreko paragrafoan azaldutakotik ondorioztatzen denez, ez dago data horretan inskribatutako arautegirik; horregatik, badirudi ez errekurtsogileak ez errekurrituak ez dutela identifikatu ustez urratu den araua.

Dena den, zehaztu behar da arautegiak aztertutakoan ondorioztatzen dela 1 Arautegian honako lehiaketa hauei buruzko esanbidezko aipamena egiten dela:

- Euskadiko Gazteen Txapelketa (14 eta 15 urte)
  - Gazteen banako kata (gizonezkoak eta emakumezkoak)
  - Gazteen banako kumite (gizonezkoak eta emakumezkoak)



- Gazteen kata taldeka (gizonezkoak, emakumezkoak edo mistoa)
  
- Euskadiko Kadete (16 eta 17 urte) eta Junior (18, 19 eta 20 urte)  
Txapelketa
  - Kadete eta junior banako kata (gizonezkoak eta emakumezkoak)
  - Kadete eta junior banako kumite (gizonezkoak eta emakumezkoak)
  - Kumite taldeka (gizonezko gazteen kadete-klubak)

Gainerako arautegiek, bestalde, kumite- eta kata-lehiaketaren arauak arautzen dituzte, baina ez dira esanbidez aipatzen errekurtsio honen xede diren lehiaketa-arauak, soilik 3.4 artikuluan taldeetako kide kopuruari buruzko aipamena egiten da (gizonezkoak 7 eta emakumezkoak 4), baina ez da banako partaidetza aipatzen (gu orain aztertzen ari garen kasua).

Hortaz, 1 Arautegia aplikatu beharko litzateke, arautegi horretan espresuki biltzen baita 14-20 urtekoei buruzko Euskadiko banako txapelketen antolamendua (kategorien izena desberdina bada ere, adin-tarteak berdinak dira)

Gazteak (Kadete)= 14 eta 15 urte

Kadete (Junior)= 16 eta 17 urte

Junior (Sub-21)= 18, 19 eta 20 urte

1 Arautegia Euskadiko Kadete eta Junior eta Sub-21 Euskadiko Kopa txapelketei aplikatuko zaiela erabaki ondoren, antolamendua arautegi horretan azaltzen diren arauetara egokitzen den azertu behar da.

Errekurtsioaren xedeari eta parte hartzeko irizpideei edo baremoari dagokionez, arautegiak honako hau ezartzen du:



- Euskadiko Gazteen Txapelketa (14 eta 15 urte)
  - Gazteen banako kata (8 parte-hartzaile lurralde bakoitzeko)
  - Gazteen banako kumite (8 parte-hartzaile lurralde eta pisu bakoitzeko)
  - Gazteen kata taldeka (8 parte-hartzaile lurralde bakoitzeko)
  
- Euskadiko Kadete (16 eta 17 urte) eta Junior (18, 19 eta 20 urte) Txapelketa
  - Kadete eta junior banako kata (8 lehiakide lurralde bakoitzeko)
  - Kadete eta junior banako kumite (8 lehiakide lurralde eta pisu bakoitzeko)
  - Kumite taldeka (4 klub lurralde bakoitzeko)

Dena den, errekurritutako txapelketen antolamenduak honako irizpide hauek ezartzen ditu parte hartzeko:

	KATA 16	KUMITE 10
ARABA	4	2
BIZKAIA	6	4
GIPUZKOA	6	4

Bi irizpideak alderatu ostean, ondorioztatzen da txapelketen antolamenduak ez duela bete 1 Arautegiak parte hartzeko baremoari buruz ezartzen duena, eta parte-hartzaile kopurua nabarmen murriztu duela.

Halaber, ez du bete pisuei buruz xedatutakoa (zifrak ez datoz bat), ezta parte hartzeko gutxieneko mailei buruzkoa ere: gerriko urdina edo marroia, kategoriaren arabera.

Horri dagokionez, KEFk berak bere alegazio-idazkian aitortu du ez-betetze hori, "Hala eta guztiz ere, arau-aldaketa horiek, onartu ez direnak, eta



erregistratu ere egin ez direnak, Euskadiko Karate Federazioaren lehiaketa ofizialetan sartu dira normalean, beste modu batera ezin baita jardun. *Beste adibide bat ematearren, adierazi behar dugu gauza bera gertatzen dela Kenpo modalitateko lehiaketak arautzen dituen arbitraje-araudia ez inskribatzeari dagokionez, modalitate horretako Euskadiko Txapelketak eta abar egin baitira. Izan ere, 2008/01/17ko lehiaketa-araudia aipatzen badugu, kontua da arautegi hori 2010az geroztik ez dela betetzen oso-osorik: kategoriak, pisuak, partaidetza, eta abar”*

Errekurtsogileak nahi du ez-betetze hori dela medio joan den urrian egindako txapelketen lehiaketa-araudiak, hots, KEFk ezarritako araudiak erabat deuseztatzea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, 39/2015 Legea) 47. artikulua urratzen delako. Lege hori EKL Legean ezarritakoaren arabera aplikatu daitezke (25.1 artikulua); izan ere, artikulua horretan aipatzen da euskal federazioek eta lurralde-federazioek eginkizun publikoak beteko dituztela, hala nola lehiaketa ofizialak kalifikatzea, bideratzea eta baimentzea. Administrazioaren laguntzaile gisa duten jardun horren ondorioz, administrazio-araudia aplikatu behar zaie funtzio horiek gauzatzetik eratorzen diren egintzei.

AKFren arabera, 47. artikulua aplikagarria izango litzateke “lehiaketa-araudia aginpiderik gabeko organo batek aldatu duelako de facto eta lege ezarritako prozedura guztiz alde batera utzi delako”

Baina 39/2015 Legea aplikatu daitezkeen arren, ez da aipatutako artikulua aplikatu behar, baizik eta 48. artikulua, zeinaren arabera, deuseztagarriak baitira ordenamendu juridikoaren edozein arau hausten duten administrazio-egintzak, aginte-desbideratze direnak barne. Eta hori, KEFk 1 Araudia ez betetzeak ez dakarrelako arautegiaren erabateko deuseztagarritasuna; izan ere, federazioko zuzendari teknikoak ezarritako parte hartzeko irizpideek ez



dute aipatutako arautegia indargabetzen eta ez du Batzarraren nahia ordezen ezta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzeko nahitaezko baldintza ere. 16/2006 Dekretuaren arabera, soilik Batzar horrek du eskumena arautegia egiteko. Arautegia indarrean egongo da legez ezarritakoaren arabera hura indargabetuko duen beste bat onartu eta inskribatu arte.

Deuseztagarritasunak, baliogabetasunak ez bezala, ez du administrazio-egintza ororen ustezko baliagarritasuna ezerezten; horrenbestez, deusezta daitekeen administrazio-egintza baten ondorioak eta administrazio-egintza baliodun batenak berdinak dira harik eta hura esanbidez deuseztatu arte.

Dena den, ondorio praktikoei begira, legezketasunari dagokionez deuseztatze baldintzak eta egintzaren baliogabetasuna agerian utzi nahi duen errekurtsua jartzeko epea bete ondoren, ez-betetzeko egintza deuseztagarritzat hartzeak baliogabetasunaren ondorio berak ditu, hau da, Euskadiko Kadete eta Junior Txapelketaren eta Sub-21 Euskadiko Koparen 2016. urteko edizioak baliogabetzat hartu behar dira eta Federazioak txapelketa horiek berriro egiteko asmoarekin jarraitzen badu, gaur egun indarrean dagoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatuta dagoen lehiaketa-arauegian (erabaki honetan 1 Arautegia deitu duguna) biltzen diren edukiak aplikatu beharko dira lehiaketa-arauegi horretako baldintzak betetzen dituzten eta federazioaren lizentzia duten federatu guztiek parte hartu ahal izateko.

Desgaituentzako Euskadiko kata kopari dagokionez, lehen ere adierazi dugu erabaki honetan hori ez dela lehiaketa ofiziala. Horrenbestez, erakunde antolatzailea ez dago behartuta lehiaketa-arauegian ezartzen dena betetzera, zeinak “lehiaketa ofizialak antolatzeko eta garatzeko erregimena arautzen baitu” 16/2006 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera.





Azkenik, KEFk bere alegazioetan adierazi duenaren arabera, “Karate Euskal Federazioaren arautegi-egoera penagarria da gaur egun, existitzen ez diren arautegiak edo duela urte asko erregistratuta dauden eta Karate Euskal Federazioak eremu askotan gaur egun jarduten duen moduarekin eta azken urte hauetan jardun duen moduarekin zerikusirik ez duten arautegiak daudenez” argi dago 16/2006 Dekretuan (36. eta 37. artikulua) biltzen den manua bete beharko duela eta berari dagozkion eginkizunak bete beharko dituela, besteak beste, lehiaketa federatuen antolamenduari dagokionez, eta gaur egun indarrean dauden arautegiak eguneratu beharko dituela berandu gabe legez ezarritako prozedurari jarraikiz.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da 16/2016 Dekretuaren 71. artikuluan federazioaren zirkularren nondik norakoari buruz ezartzen dena. Federazioaren zirkularrak “estatutuen eta arautegien indarraldia, ezarpena, interpretazioa nahiz federazioari dagozkion bestelako gaiak ezagutarazteko erabiliko dira, baina ez dute berezko arau izaerarik izango.”

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

### **ERABAKITZEN DU:**

Zati batean baiestea Karate Euskal Federazioak Euskadiko Kadete eta Junior Txapelketaren, Sub-21 Euskadiko Koparen eta desgaituentzako Euskadiko Kata Koparen lehiaketa-irizpideen aurka Arabako Karate Federazioko jarduneko lehendakari \*\*\*\*\* jaunak jarritako errekurtsioa, lehenengo bi txapelketei buruzko irizpideak baliogabetzat hartuz eta hirugarren txapelketarako ezarritako irizpideen baliotasuna berretsiz.



Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dezakete Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 22a.

**JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL**

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea